



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.09.10

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko irailaren hamarrean, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Iñigo Alonso Sarasibar	
Jarduneko idazkaria:	1. Aurreko akta onartzea.
Karmele Contreras Goikoetxea	2. Onartzea Amarozkoko Auzoetxe eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko egikaritze-proiektua.
Kontuhartzailea:	3. 2018ko asfaltatze-lanen proiektuaren onarpena.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4. 45/2018 eta 46/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko irailaren 3an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. ONARTZEA AMAROSKO AUZOETXE ERAIKIN OSOA ETA ANBULATORIOKO LOKALA ZATIKA BERREGOKITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA.

Aurrekariak.

2017ko ekainaren 12ko 1050 Dekretuaren bidez onartu zen baldintza-agiria, Tolosako Amarozkoko Auzoetxe eraikina eta anbulatorioko lokala berregokitzeko proiektua idazteko eta obra zuzendaritza eramateko lehiaketarako.

Zegokion prozedura burutu ondoren, 2017ko abuztuaren 7ko 1440 Dekretuaren bidez, ALD ingeniería, arquitectura y equipamiento SLP enpresari adjudikatu zitzaion kontratua.



TOLOSAKO
UDALA

2018ko apirilaren 20an, ALD ingeniería, arquitectura y equipamiento SLP enpresak exekuzio proiektua aurkeztu zuen.

2018ko maiatzaren 17an, Tolosako Udalak eskatu zion Earki Arkitektoak S. Coop. Peq. P. enpresari azter zezala Amaroizko Auzoetxe eraikina eta anbulatorioko lokala berregokitzeko proiektua, ondoren proiektua onartzeko.

Proiektuaren azterketa egin eta gero, Earki Arkitektoak enpresak Udalak eskaturiko txostena egin zuen (ikus UA18044), non proiektua onartu aurretik, txostenean jasotzen ziren zenbait aldaketa egitea eskatzen zen.

2018ko abuztuaren 2an, ALD ingeniería, arquitectura y equipamiento SLP enpresak eskaturiko aldaketak jasotzen zituen proiektua aurkeztu zuen.

2018ko abuztuaren 24an, Earki Arkitektoak S.Coop.Peq. P enpresak txostena egin du eta onartzen du aurkeztutako proiektua. Hauxe da eginiko txostena:

Txostena

1.- Xedea

Txosten honen xedea da honakoa aztertzea: Amaroizko Auzoetxe eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obren exekuzio-proiektua, 2018ko uztailean ALD ingeniería, arquitectura y equipamiento SLP enpresak sinatua.

2.- Egungo egoera

Proiektuak bere xehetasunen baitan jasotzen ditu gaur egungo egoera eta baldintzak:

Auzoetxe eraikina Amaroizko auzoan kokatzen da, Tolosan, lorategiz hornitutako lursail baten barruan, landaretzaz inguratua. Tokiak malda txiki bat dauka beheantz, errepide aldera, eta bertatik pasatzen da eraikin nagusiko sarrerara daraman oinezkoentzako bidea.

Hegoaldetik eta ekialdetik, bizitegi-eraikinez inguraturik dago. Mendebaldean, ezagutzen erraza den tipologia duen haur hezkuntzako eraikin bat kokatzen da.

Auzoetxe eraikinaren hegoaldean aurkitzen den etxebizitza eraikin baten beheko aldean aurkitzen da anbulatorioa. Eraikinaren hegoaldeko fatxadatik dauka honek sarrera.

Barne espazioa korridore zabal baten inguruan antolatzen da, gela ezberdinei sarrera ematen dielarik. Irisgarriak ez diren banakako lau kabina dituen bainugela bat badauka.

Auzoetxe luzetarako oina eta bi isuriko estalkia duen solairu bakarreko eraikina da ipar-ekialde – hego-mendebalde aldeetara bideratua. Buruhorma, garaiera handiagoa eta eraikuntza nagusiaren tarteko hormaren kontra errematatzen diren hiru isuriko estalkia duten bolumen banak errematatzen dute.

Fatxada egituraren zati den harrizko hormaz osatua dago. Honen gainean eusten da bi isuriko estalkia osatzen duen zurezko egitura. Zentratuta ez dagoen goi-habea, barnealdean dagoen zutabe lerroak eusten du.

Estalkia, teilaz osatua dago eta fatxadak harrizko oinaldea dauka. Kantoi eta arkuetakako erremateak ere harrizkoak dira. Gainontzeko azalera, margotutako mortero zarpiatuaz estalia dago.



TOLOSAKO
UDALA

Arotzeria eta fatxadaren gainazaleko kalte batzuk salbu, eraikina baldintza ezin hobean aurkitzen da, beraz, esku-hartzea, eraikinaren barnealdea egokitzen bideratuko da.

Esku-hartzearen ondoren, gaur egun duen erabilera berdina izango du, hau da, bizilagunen elkartearen lokal gisa funtzionatzen jarraituko du.

Anbulatorioak gaur egun erabilera du eta egoera onargarrian aurkitzen da.

3.- Egokitze programa

Esku artean dugun proiektuak irtenbide teknikoaren proposamenak jasotzen ditu, modu honetara:

Auzoetxe eraikinaren berregokitzea barnealdearen eraberritze osoan datza. Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, fatxadetan esku hartuko da, kanpoko arotzeria aldatuz leiho-oholen ordeztasian jarritik, eta fatxadak dituen kalteak konponduz, margo-lanak egiteko azkenik.

Auzoetxek, eraberritu ondoren, egun duen erabilera bera izango du. Esku-hartze honen xedea hainbat aldatetetan oinarritzen da, eraikinaren instalazioak hobetzea, barne antolamendua egungo beharretara egokitzea, erosotasuna bermatzeko isolamendua hobetzea, akaberak aldatzea, kanpoko arotzegiak ordezkatzeko eta leiho-oholen ordeztasian jartzea besteak beste. Nahiz eta trenkada gehienak mantendu eta egun dauden instalazio gehienak erabili, eraikuntzak, era bateko aldaketa jasango du, itxurari eta erosotasun baldintzei dagokienez.

Eraikinaren inguruko urbanizazioan ez da esku-hartzerik izango.

Oinplano errektangularra duen eraikina da. Egun, sarrera, ipar-mendebaldeko fatxadan dauka, eta irisgarritasun araudia betetzen duenez, era berean egoten jarraituko du. Sarrera honetatik bainugela irisgarri, Kzgunera edo eraikina luzetara zeharkatzen duen korridorera iritsi daiteke. Gainontzeko gelak funtzionamenduan ez badaude ere, sarrera irisgarri aurretik aipatutako beste sarreratik iritsi daiteke, auzoari zerbitzu hori eskaini diezaion. Gauza berdina gertatzen da Kzgunearekin. Bi gune hauek, eraikin osoaren erabileratik alde batera utzi daitezke.

Eraikinaren erdiko korridoretik, espazio beraren bi aldetara kokatzen diren gainontzeko geletara sar daiteke, baita pilotalekura eta antzokira ere, zein korridorearen luzetarako alde banatan kokatzen diren.

Eraikina espazio ireki bat bezala ulertzeko asmoz, korridorearen eta zenbait gelaren artean beirazko itxurak proposatu dira nahiz gune hauek estore bidez pribatizatu eta iluntzeko aukera zabalik utzi.

Anbulatorioko esku-hartzearen helburua hau osatzen duten eskakizun eta instalazioak irisgarritasun araudira (68/2000 Dekretua) egokitzea da.

Ateen irekierek gutxienez 90 cm-ko tartea izan dezaten, lau ale aldatu egingo dira. Gainera, egungo bainugelak bota egingo dira, gelaurre eta bainugela irisgarri bat eraikitzeko. Hauetan, hurrenez hurren, oztoporik gabeko 180 cm eta 150 cm-ko diametrodun zirkunferentziak inskribatzea posible izango da.

Iturgintza, saneamendu eta argindar-argiteria instalazio berriak egingo dira, dagokien guneetan.

4.- Dokumentazioa

Proiektuak, besteak beste, ondorengo dokumentazioa jasotzen du:

A) MEMORIA

1. MEMORIA DESKRIBATZAILEA

- 1.1.- ERAGILEAK
- 1.2.- AURRETIKO INFORMAZIOA
- 1.3.- HARTUTAKO KONPONBIDEA
- 1.4.- AZALERA KOADROA



TOLOSAKO
UDALA

1.5.- EGUNGO ARAUDIA BETETZEA

2. MEMORIA KONSTRUKTIBOA

- 2.1.- ERAIKINAREN SOSTENGUA
- 2.2.- EGITURA SISTEMA
- 2.3.- ITXITURA SISTEMA
- 2.4.- KONPARTIMENTAZIO SISTEMA
- 2.5.- AKABERA SISTEMA
- 2.6.- EGOKITZAPEN ETA INSTALAZIO SISTEMA
- 2.7.- ZERBITZU SISTEMAK

3. ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

- 3.1.- SUTEAREN AURKAKO SEGURTASUN OINARRIZKO ESKAKIZUNA
- 3.2.- EGITURA SEGURTASUN OINARRIZKO ESKAKIZUNA
- 3.3.-ERABILPEN SEGURTASUN ETA IRISGARRITASUN OINARRIZKO ESKAKIZUNA
- 3.4.- OSASUNGARRITASUN OINARRIZKO ESKAKIZUNA
- 3.5.- ENERGIA AURREZTEA OINARRIZKO ESKAKIZUNA
- 3.6.- ZARATAREN KONTRAKO BABESA OINARRIZKO ESKAKIZUNA

4.- ERAIKINAREN JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA

5.- BESTE ARAUADI ETA XEDAPENAK BETETZEA

B) PLANOAK

OROKORRAK. AUZOETXE ETA ANBULATORIOA

- G.01.- LEKUGUNEA
- G.02.- KOKALEKUA
- G.03.- ORTOFOTOA

GAUR EGUNGO EGOERA. AUZOETXE

- EA.01.- GAUR EGUNGO EGOERA. OINA
- EA.02.- GAUR EGUNGO EGOERA. ALTXAERAK
- EA.03.- GAUR EGUNGO EGOERA. EBAKETAK
- EA.04.- GAUR EGUNGO EGOERA. ESTALKIA

GAUR EGUNGO EGOERA. ANBULATORIOA

- EA.05.- GAUR EGUNGO EGOERA. OINA

ERAISPENAK. AUZOETXE

- DM.01.- ERAISPENAK

ERAISPENAK. ANBULATORIOA

- DM.02.- ERAISPENAK

ARKITEKTURA. AUZOETXE

- A.01.01.- OINA KOTATUA ETA AZALEREKIN 01
- A.01.02.- OINA KOTATUA ETA AZALEREKIN 02
- A.02.- ALTXAERAK
- A.03.01.- EBAKETAK 01
- A.03.02.- EBAKETAK 02
- A.04.- ESTALKIA
- A.05.01.- IGELTSERITZA 01
- A.05.02.- IGELTSERITZA 02



TOLOSAKO
UDALA

A.06.01.- SAPAIK. ALTUERAK
A.06.02.- SAPAIK. AKABERAK
A.07.01.- BARNE AROTZERIA 01
A.07.02.- BARNE AROTZERIA 02
A.08.01.- KANPO AROTZERIA 01
A.08.02.- KANPO AROTZERIA 02
A.08.03.- KANPO AROTZERIA 03

ARKITEKTURA. ANBULATORIOA

A.09.- OINA KOTATUA ETA AZALEREKIN
A.10.- AROTZERIAK

EGITURA. AUZOETXE

E.01.- ESKAILERA

INSTALAKUNTZAK. AUZOETXE

IS.01.- UR ZIKINEN SAREA
IF.01.- ITURGIN SAREA
IET.01.- ELEKTRIZITATE ETA ARGITERI INSTALAKUNTZA
IC.01.- BEROGAILUEN INSTALAKUNTZA
ICI.01.- SUTEEN AURKAKO INSTALAKUNTZA
IV.01.- AIREZTAPEN INSTALAKUNTZA
R.01.- BATA BESTERAEN GAINEKO INSTALAKUNTZAK

INSTALAKUNTZAK. ANBULATORIOA

R.02.- INSTALAKUNTZAK

HONDAKINEN KUDEAKETA

GR.01.- HONDAKINEN KUDEAKETA

SEGURTASUNA ETA OSASUNA

SS.01.- SEGURTASUN OROKORRAREN EZARPENA
SS.02.- XEHETASUNAK 01
SS.03.- XEHETASUNAK 02
SS.04.- PREBENTZIO ETA SEGURTASUN ARAUAK
SS.05.- BABES KOLEKTIBOAK.OINAK

C) AURREKONTUA

D) BALDINTZA PLEGUA

E) KALITATEA KONTROLATZEKO PLANA

F) OINARRIZKO OSASUN ETA SEGURTASUN AZTERLANA

G) ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONAKINEN KUDEAKETA-AZTERKETA

H) ERANSKINAK

01 ERANSKINA.- EKODISEINUA
02 ERANSKINA.- ERABILERA ETA MANTENU JARRAIBIDEAK
03 ERANSKINA.- ITURGIN ETA SANEAMENDU INSTALAKUNTZA
04 ERANSKINA.- SUTEEN KONTRAKO INSTALAKUNTZA
05 ERANSKINA.- ARGIZTAPEN ETA INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK
06 ERANSKINA.- UR BERO SORKUNTZA ETA BEROGAILU INSTALAKUNTZA



TOLOSAKO
UDALA

- 07 ERANSKINA.- AIREZTATZE INSTALAKUNTZA
- 08 ERANSKINA.- GAS INSTALAKUNTZA
- 09 ERANSKINA.- HE0-HE1
- 10 ERANSKINA.- HS1
- 11 ERANSKINA.- ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZERTIFIKATUA
- 12 ERANSKINA.- LANEN KRONOGRAMA
- 13 ERANSKINA.- KODE TEKNIKOAREN BETETZEA
- 14 ERANSKINA.- IRISGARRITASUNA

5.- Aurrekontua

Proiektua osatzen duten dokumentuetako bat aurrekontuarena da. Bertan, honako kopuruak jasotzen dira:

- Gauzatze aurrekontu materiala.....241.820,37 €
- GO+EI (% 19).....45.945,87 €
- Kontrata aurrekontua.....287.766,24 €
- BEZa (% 21).....60.430,91 €

- **GUZTIRA.....348.197,15 €**

Tolosako Udalak kontsignaturik du obra hau finantzatzeko behar den kopurua 2018ko aurrekontuan, 0700.622.02.920 31.2018 partidan, hain zuzen ere.

Sektore Publiko Legaren 235 artikularen arabera ez da derrigorrezkoa proiektua gainbegiratzea, 500.000,00 euroko kopurua ez duelako gaintitzen eta ez duelako egitura ukitzen.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen den txosten teknikoarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. Onartzea Amaroizko Auzoetxe eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko egikaritze proiektua, ADL ingenieria, arquitectura y equipamiento SLP enpresak egindakoa.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.



TOLOSAKO
UDALA

3. 2018KO ASFALTATZE-LANEN PROIEKTUAREN ONARPENA.

Aurrekariak.

2018ko irailaren 4an, Estebe Uribe Udal arkitektoak ondorengo txostena egin du:

HELBIDEA:	San Frantzisko pasealekua eta Araba etorbidea
ESKATZAILEA:	Tolosako Udala.
ESKAERA:	Proiektua onartzea.
DOKUMENTAZIOA:	Memoria, planoak eta aurrekontua.
IDAZLEA:	Udal bulego teknikoa.
ESPEDIENTEA:	
URTEA:	2018

TXOSTENA :

Ikusirik Aitor Etxaide ingeniariak egindako txostena, non justifikatzen duen hainbat errepidetan asfaltoaren egoera txarra dela, eta udalerriko errepideak egoera onean mantentzeko 2018. urtean konponketa lanak egin behar direla, ondorengo txostena egiten da kontratazio espedientean justifikatzeko.

Txosten honen xedea da 2018ko aurrekontuan dauden mantentze-lanen **0700.210.01.153.20** eta inbertsio-lanen **0700.601.06.153.20** partidei dagokien proiektua onartzea. Proiektu bakarra idatzi da, baina gastu motaren arabera bi lotetan banatu dira lanak: lehenengo lotea, mantentze-lanak, eta, bigarren lotea, kontserbazio edo inbertsio-lanak. Udal bulego teknikoak idatzi du obrak lehiaketara ateratzeko dokumentazioa: memoria, planoak eta aurrekontua.

I. AURREKARIAK eta ESKU-HARTZEAREN XEDEA

Tolosako Udalak, urtero, hiriko erroadura-errepideak egokitzeko aurrekontu-partida bat antolatzen du, udalerriko errepideak ahalik eta egoera onenean egon daitezen. Zaindu beharreko azalera handia denez eta lan horiek gauzatzea garestia denez, okerren dauden errepideak lehenetsi beharra dago.

Horretarako, lehenik, kalez kaleko azterketa bat egin zen; bigarrenik, Udaltzaingoa igorritako intzidentziak bildu ziren; eta, azkenik, herritarrek bidalitako kexak eta Udalean aurkeztutako ondare-erreklamazioak jaso ziren.

Udaleko bulego teknikoak azterketan kale guztiak konpontzeko 733.629,33 €-ko gastua aurreikusten zuen. Ondoren, 2018. urteko aurrekontuaren arabera lehentasunak aztertu



ziren Obra Departamentuaren eta udal agintarien iritziak jasota. Horrela, 2018. urtean asfalto lanetarako 300.015,15 €-ko gastua egingo zela adostu zen.

II. EGUNGO EGOERA

Proiektuan jasotzen den bezala, Tolosako kale askotako asfaltoa egoera txarrean dago. Askotan, konponketa puntualak egin dira, baina egungo egoera ikusita, mantentze- edo kontserbazio-lan integralagoak egitea ikusten da. Aukeratu diren kaleetan bi mota bereizten dira: patologia puntualak dituzten kaleak eta asfaltozko gainazala orokorrean egoera txarrean duten kaleak.

III. EGOKITZE PROPOSAMENA

Asfalto-lanen artean bi mota bereizten dira: patologia puntualak dituzten kaleetan, soilik zuloak estaliko dira; eta, egoera okerragoa duten kaleetan, gainazal osoak asfaltatuko dira. Gainera, kaltetutako seinalizazio horizontala berriz pintatuko da udal teknikarien irizpideen arabera.

Gastu-mota dela eta, lehenengoak mantentze-lanak izango dira, eta, bigarrenak, inbertsio-lanak (kontserbazio-lanak). 2018ko asfalto-lanak ondoren adierazten diren eremuetan egitea proposatzen da:

1. LOTEA: Kale hauetako zuloak estaliko dira:

- 1.1. Sagardotegiko bidea
- 1.2. Pedro Tolosa
- 1.3. Iparragirre
- 1.4. Donostia etorbidea
- 1.5. Bentaundi
- 1.6. Bizkaia kalea
- 1.7. Iurre-Eroski ingurua
- 1.8. San Frantzisko pasealekua 28-30 kale txikia

2. LOTEA: Kale hauetako gainazalak asfaltatuko dira:

- 2.1. San Esteban
- 2.2. Rondilla kalea
- 2.3. Andre Maria kalea
- 2.4. San Blas – Hilerriko bidea

2018ko asfalto-planaren **mantentze-lanak** edo **1. lotea** aipaturiko kaleetan zuloak estaltzeko lanak izango dira. Zulo horietan asfaltozko aglomeratua fresatuko da 5 cm-tan (kasuren baten fresatua 10 cm-koa izango da). Ondoren, berriz ere zoladura jarriko da 5



TOLOSAKO
UDALA

cm lodiko erroadura-geruza batekin (AC16 SURF 50/70 D OFITA motako asfaltozko aglomeratua).

Zuloak konpontzerakoan, kaltetutako seinalizazio horizontala berriztu egingo da. Kaltetutako pinturazko elementuaren azaleraren % 20 baino gehiago eragiten bada, elementu osoa berriz marraztuko da.

2018ko asfalto planaren **inbertsio-lanak (kontserbazio-lanak)** edo **2. lotea** aipaturiko kaleetako gainazalak asfaltatzeko lanak izango dira. Gainazal horietan asfaltozko aglomeratua fresatuko da 5 cm-tan. Ondoren, berriz ere zoladura jarriko da 5 cm lodiko erroadura-geruza batekin (AC16 SURF 50/70 D OFITA motako asfaltozko aglomeratua).

Asfaltatu ondoren, seinalizazio horizontala pintatuko da udal teknikarien irizpideen arabera.

IV. DOKUMENTAZIOA

Obrak egin ahal izateko, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituenak, bere 231. eta 233. artikuluetan xedaturiko obra-proiektu bat idatzi da. Proiektuak hurrengo dokumentazioa jasotzen du:

MEMORIA TEKNIKOA

AURREKONTUA

DOKUMENTAZIO GRAFIKOA (PLANOAK)

SEINALIZAZIO HORIZONTALAREN ZEHAZTAPEN DOKUMENTUA

V. EPEA

1. Lotea: mantentze-lanen obrak egiteko aurreikusitako epea 3 astekoa da (gehienez).
2. Lotea: inbertsio-lanen (kontserbazio-lanak) obrak egiteko aurreikusitako epea 3 astekoa da (gehienez).

VI. AURREKONTUA

1. LOTEA: Mantentze-lanak



TOLOSAKO
UDALA

EREMUA	ZULOEN AZALERA m2	ZENBATEKOA PEM €	ZENBATEKOA PEC €	BEZ %21	GUZTIRA BEZ BARNE
1.1 SAGARDOTEGI BIDEA	249,00	5.722,02 €	6.809,20 €	1.429,93 €	8.239,14 €
1.2 PEDRO TOLOSA KALEA	63,00	1.444,88 €	1.719,41 €	361,08 €	2.080,48 €
1.3 IPARRAGIRRE KALEA	53,00	1.217,94 €	1.449,35 €	304,36 €	1.753,71 €
1.4 DONOSTIA ETORBIDEA	299,50	6.882,51 €	8.190,19 €	1.719,94 €	9.910,13 €
1.5 BENTAUNDI	504,20	11.586,52 €	13.787,96 €	2.895,47 €	16.683,43 €
1.6 BIZKAIA KALEA	82,00	1.884,36 €	2.242,39 €	470,90 €	2.713,29 €
1.7 IURRE-EROSKI	311,00	7.146,78 €	8.504,67 €	1.785,98 €	10.290,65 €
1.8 SAN FRANTZISKO	725,00	16.660,50 €	19.826,00 €	4.163,46 €	23.989,45 €
GUZTIRA	2286,70	52.545,51 €	62.529,16 €	13.131,12 €	75.660,28 €

Printzipala 62.529,15 € + % 21eko BEZa 13.131,12 € = Guztira, 75.660,28 €.

Tolosako Udalak kontsignatuta dauka aipaturiko dirua 2018ko aurrekontuan, mantentze-lanen **0700.210.01.153.20** partidan.

2. LOTEA: Inbertsio-lanak (kontserbazio-lanak)

EREMUA	AZALERA m2	ZENBATEKOA PEM €	ZENBATEKOA PEC €	BEZ %21	GUZTIRA BEZ BARNE
2.1 SAN ESTEBAN	2358,96	40.024,21 €	47.628,81 €	10.002,05 €	57.630,86 €
2.2 RONDILLA KALEA	2567,87	49.225,61 €	58.578,48 €	12.301,48 €	70.879,96 €
2.3 ANDRE MARIA KALEA	472,16	11.013,78 €	13.106,40 €	2.752,34 €	15.858,74 €
2.4 SAN BLAS	2000,26	55.531,62 €	66.082,63 €	13.877,35 €	79.959,98 €
GUZTIRA	7399,25	155.795,22 €	185.396,31 €	38.933,23 €	224.329,54 €

Printzipala 185.396,31 € + % 21eko BEZa 38.933,23€ = Guztira, 224.329,54 €.

Tolosako Udalak kontsignatuta dauka aipaturiko dirua 2018ko aurrekontuan, inbertsio-lanen **0700.601.06.153.20** partidan.

Sektore Publiko Legaren 235. artikulua arabera, ez da derrigorrezkoa proiektua gainbegiratzea, 500.000,00 euroko kopurua ez duelako gainditzen eta ez duelako egitura ukitzen.

Ikusita obren aurrekontua eta 2015eko 1278 Dekretua, zeinaren bidez Gobernu Batzordean eskuordetzen diren hainbat eskuduntza, Gobernu Batzordeari dagokio proiektua onartzea.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen den txosten teknikoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea 2018ko asfaltatze-lanen proiektua, Udal Zerbitzu Teknikoak egina, onartzea. Proiektuak ondorengo dokumentuak ditu:

- Memoria.
- Planoak
- Aurrekontuak
- Seinalizazio horizontalaren zehaztapen dokumentua

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.

4. 45/2018 ETA 46/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **45/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **400.527,51 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **45 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **46/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.205,55 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA. -46/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

JARDUNEKO IDAZKARIA